

IRITZIA

» zuzendariari

BERRIAK irakurleen eskutitzak plazaratzen ditu. Tarde bikoitzarekin idatzitako orrialde batean kabitu behar dute, eta BERRIAK mozteko eskubidea du. Helbide honetara bidali behar dira, izena eta herria adierazita: BERRIA, Martin Ugalde Kultur Parkea, 30012 Andoain, iritzia@berria.info

Inaki Iruin, esker agurra

Garaia eta dotorea zinen itxuraz; neurtezina, aldiz, borondate eta gizatasunean. Zure bizitza osoa gazteei eskaini diozu, Tolosatik Iruin bitartean ez da izango gazterik zu ezagutu eta zutaz ahaztu denik. Handia zenuen burua; kalibra ezinak, ordea, bihotza eta besteei laguntzeko borondatea eta maitasuna. Matematika, mekanika... irakastea zenuen lanbide, gizatasun eta giza balioak irakastea, berri, helburu; azken horiek dira zure ikasleen bizibideetan dihardutenak. Makina bat gazte inguratu zaizu ikasgelatik kanpo, batzuk arazoz beterik, beste batzuk lan eske, besteak eskerrak emanez, ez gutxi zurekin ondo pasatu nahirik... Denak esku eta bihotz zabalez hartzen zenuen, pazientzia handiarekin entzuteko denbora hartzen zenuen, gutzientzat zenuen lasaitasun hitzak, gutziet irtenbideak ematen saiatzen zinen... Gurasoek ere, askotan, zuregan jo zuten aholku eske. Zenbat bikote inguratu ote zaizkizu elkarren arteko arazoak konpontzeko formularen bila? Zuk esperientzia bazenu bezala! Haieie ere zer esan asmatuko zenuen.

Langabezia zeuden eta

bizitzan galdu xamar zebiltzan gazteei ere ikastaroak eman zenizkien, «*esta vida es una mierda*» esanez hasten omen zuten, baina bukatzerako zureganatzen zenuen; bizitzea merezi zuela eta zerbaiterarako gai zirela erakusten zenuen 200 orduen buruan.

Pertsona xumea zinen, alaia, egiazalea, ez zenituen galoiak eta goraipatzeak maite (hitz hauek lotsatuko zintuzke), harrokeria gorrotu zenuen, isilik eta entzuten jakinez azpi lan asko egin zenuen, simplea zinen, lagun hurkoa maite zenuen, zuregana iristea nahikoa erraza zen.

Zure hileta elizkizunean balkoietan dauden lore isilekin alderatu zintuzten, apaingarri, xume eta alaiak diren loreekin.

Euskaltzalea izan zara, euskaldunak eta euskal ohi-turak, euskal kantuak eta Euskal Herria maite izan dituzu.

Urte gutxi bizi izan zara, berrogeita hamalau baka-rik, baina bat ere ez alferrik. Bizitza labor horretan milaka pertsonarengana iritsi zara, hileta elizkizuna izan zen horren adierazle, pare bat mila persona beharbadak... Azken minutuetako txalo zaparrada hura izan zen zuri eskerrak emateko aukera.

Don Bosko zenuen eredu,

gazteak helburu, eta zu Inaki Iruin zinen bere ispilu. Mundu eta Euskal Herri hau, zu bezalako gizon gutxi batzuekin beste bat litzateke.

Eskerrak asko denagatik, bizitzaren apustua irabazi duzu.

2004ko azaroan 12ko goizeko betarik izan handi distiratsatu bat badela diote...

Pilare Goenaga
Urnieta

Alardearenak? Zerikusirik ez

Penagarria da Hondarribiko mutiko horren kasua. Drama bat da, batez ere familia-erentzat, eta horrek ez dauka eztabaidarik; doluminak ematea baino ez dago.

Baina irakurtzen nabili ia egunero horri buruzko iriz-ziak, bata besteari erruaren kaka burutik behera botatzen (lagunak-gurasoak-irakasleak-ikasleak), eta gehienak, nire ustez, gako saihestu nahian dabilta.

Nire ustez, Hondarribiko (eta Irungo) herria gaixorik dago, gorrotoz gaixorik. Baina, noski, horrek ez dauka zerikusirik.

Herriko jaietan hasten baina urte osora luzatzen diren jazarpen jarrekar normal-normalak dira han. Baina, noski, hori beste gauza bat da.

Badira umeak bizitza

gehiena halako giroan pasatu dutenak. Eurentzat eguneroko gauza normala da auzokoa iraintzea, dendarri bati boikota egitea, disidentea mespretxatzea. Baina, noski, kanpotarrok ezin dugu ulertu.

Drama handia da hau, eta ez da barrerik egin behar. Mutiko hori ez da bueltaruko, baina badago hemen zer ikasi. Urteetan ereindako pozioak garrantzia dauka kasu honetan seguru asko. Beraz, Hondarribian ez daukate lan makala egindako zentzugabekeria onorioak sendatzeko.

Oier Gorosabel Larrañaga
Lekeitió

Sarkozy eta Islama

Arazo guztietan muturra sartu nahi dik Sarkozy kakalardoak! Bi ministerio utzi eta ez da egun bat iragaten haren izena aipatu gabe. Harrengan sortu da jazarro handi bat azken egun horietan: laikotasunaren izenean eskolatan zapi islamista eta beste ikur erlijiozaleak debekatu nahi dituenak meskitak Estatuko diruaz lagundu nahi ditu! Zentzugabekeria; meskitak laguntzekoan zergatik ez elizak, tenpluak eta sinagogak?

Jakes Laffite
Uganda

» Larrepetit

Oinez 2006



CASTILLO SUAREZ

Berriki 2005eko Nafarroa Oinez aurkeztu dute. Aurkeztu dituzte, beraz, heldu den urterako logotipoa, leloa, ibilbidea, helburuak, materiala... Alabaina, aurkezpenaren egunean, ezin izan nituen beratarrak ahaztu. Izan ere, 30 urteren ondotik, Labiaga ikastola, Nafarroako eremu euskalduneko kokatua, ez dago legezaturik; hertzakiago, DBH da legezaturik eta, zehazki, hitzarturik ez dagoena.

Ikaragarriak dira Nafarroako Gobernuak jarri dituzten oztipoak eta trabak; eta antzuek izan dira orain arte bide administratibo eta judizialak. Horretaz gain, edo horren gainetik, batzuen interes agerikoak zein ezkutuak, mesfidantza, lehia, babes eza... daude. Aferreran alderdirik itsusienak dira horiek. Alderik politenak, ordea, ikastolako ego-narrria, lana, ilusioa, aldarrikapena, a-sardia...

2006ko Nafarroa Oinez Beran ospatuko da. Ez dute dirua erabiliko eraikin berri bat egiteko, bizirik irauteko baizik, hau da, aitortza ofizialik ez duen egitate baten jarraipena bermatzeko. Lanean jarraitzeko heldulekuak da Nafarroa Oinez.

Izokina izan zen azkenekoz Beran egin zen Nafarroa Oinezaren irudia. Izokina nekaezina da. Nahiago du hazte-gian bazkatzea baino, errekan gora abiatzea itsasorantz. Bueltaokoa, ur korrontearen kontra ibilki da izokina, jauzika eta trabak saihestuz, batzuetan ur uherretan eta besteetan ur gardenetan. Ber-rako Labiagai ikastolako jauririk handiena geratzen zaie: legezatzeta.

» galde-eskeak



JOSE LUIS ALVAREZ
ENPARANTZA,
TXILLARDEGI
IDAZLEA

Euskara despolitizatu egin behar dela diote beren politikarekin euskara amildegira eramandutenek. Zer erantzungo zenieke?

Fermin Aizpuru

Amets iraunkorra: euskara politikarietatik at jartzea. Ederrago. Garbiago, omen. Baina hizkuntza, autismo patologikoa ez denean, gizarte tresna da. Eta gizarateak oro, politika arazo iturri. Arago gure euskal gizarate hau, azenarioz zein makilaz, guztiz politizatuta dauden etsai indartsuek, ukaturik, zafraturik, eta hemendik eta handik desagertzera kondenaturik daukatelarik. Euskara politizatzeari, bai, beraz. Noski! Euskal nazio proiektuaren habe nagusitzat, hain zuzen.

Bidali zure galderak iritzia@berria.info helbide elektronikora.

» www.berria.info

**Batasunaren ekarpena
baliagarria iruditzen zaizu
bakea lortzeko?**

BAI	% 88
EZ	% 12

Baliagarria da ETAK su-etena ematen badu. Noski, horretarako espainiar gobernuaren jarrekan aldatzea eman beharko litzateke (azken asteetako 60 atxilotuak ez dira adibiderik onena). **Abertzale bat**

Batasunaren ekarpena bakegintzaren zati bat baino ez da. Batasunak egin du bere aportazioa, mugitu da. Non daude beste guztien aportazioak? Estatuarena ikusten ari gara, sarekadak, torturak, espetxe eta gezur informatiboak... EAJK, EAK, EBK, Aralarrek... zer proposatzen dute? Tregua. Horrela zerbait koponduko balitz bezala. Zer esaten ari dira tortura salaketen inguruan? Ezer ez. Badirudi giza eskubideak ez direla existitzen kasu hauetan. **Joseba**

» hitz beste

Ihesari dei

ANJEL LERTXUNDI

Denbora zutabeka eta zutabeen arabera kontatzen hasita nago: hainbat zutabe falta dira Gabonetarako; Bilbora joan beharra duz bost zutabe barru... Kontua da orain zutabe batzuk, mugikorrek dakarten hizkera-aldaketaren bi adibide ematen nituela: mugikorra bateriarik gabe gelditu, eta «ezin naun kargatu» zioenaren bata; bestea, berriz, «segapotoan topatuko nauk» esaldi ohikoarena, mugikorra bihurtu baitugu zilbor-heste.

Beste bi perla jaso ditut orduetik: nire iloba bati «perdida bat daukat!» entzun nion orain zutabe gutxi; muti-lagunak egindako deiagatik ari zen, ez haurdun gelditu izanaren kezka. Nire adiskide bat «Miren, ihes egiten didazu!» ari zitzaien esaka segapotoaren beste aldekoari: mugikorra zen ahotsa gaitzen ari zen iheslari axolagabea, jakina, eta ez Miren. Hizkuntza mugikorra delako gertatzen diren fenomenoak guztiak ere.